Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko azaroaren 25a, osteguna — 226 — Jueves, a 25 de noviembre de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AÑARBEKO UREN MANKOMUNITATEA

*Usurbilgo Udalaren eta Añarbeko Uren Mankomunitatearen arteko hitzarmena, udal-titulartasunpeko hornidura-sistemen kontrol eta zaintza unitate berriari laguntzera bideratutako jarduerak egiteko Kudeaketa-mandatuari buruzkoa.*

Añarbeko Uren Mankomunitateko Batzarrak, 2021eko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Usurbilgo Udalaren eta Añarbeko Uren Mankomunitatearen arteko hitzarmena onestu du, udal-titulartasunpeko hornidura-sistemen kontrol eta zaintza unitate berriari laguntzera bideratutako jarduerak egiteko Kudeaketa-mandatuari buruzkoa. Hitzarmena bi alderdiek sinatu zuten 2021eko uztailaren 21ean.

Hori guztia argitara ematen da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.3 b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jarraian jasotzen da hitzarmenaren testu osoa:

*Usurbilgo Udalaren eta Añarbeko Uren Mankomunitatearen arteko hitzarmena, udal-titulartasunpeko hornidura-sistemen kontrol eta zaintza unitate berriari laguntzera bideratutako jarduerak egiteko Kudeaketa-mandatuari buruzkoa.*

Donostia, 2021eko uztailaren 21ean.

BILDURIK

Agurtzane Solaberrieta Mesa anderea, adinduna (NAN: xxxxxxxx-x; ondorio hauetarako helbidea: Usurbilgo Udaletxea, Joxe Martin Sagardia plaza, z/g, Usurbil).

Eta Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga jauna, adinduna (NAN: xxxxxxx-x; ondorio hauetarako helbidea: Errotaburu pasealekua, 1, 6. solairua –Donostia–).

PARTE HARTZEN DUTE

Agurtzane Solaberrieta Mesa andereak Usurbilgo Udaleko alkate gisa, Udal Osoko Bilkurak 2021eko uztailaren 20an hartutako erabakiaren arabera jardunez.

Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga jaunak Añarbe Ibaiaren Urtegiko Uren Udal Mankomunitateko (Mankomunitatea aurrerantzean) presidente gisa, Mankomunitateko Batzarrak 2021eko maiatzaren 7ko bilkuran hartutako erabakiaren arabera jardunez.

Beren karguei dagozkien funtzioak eta eman zaizkien ahalmenak betez, Kudeaketa-mandatuko hitzarmen hau izenpetzeko gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri, eta, hori guztia kontuan hartuta, honako hau

AZALTZEN DUTE

*Lehenengoa.* Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 25.2 artikuluak ezartzen duenez, udalerriak eskumen propio gisa baliatuko ditu «etxeetako edateko uraren hornidura eta hondakin-uren saneamendu eta tratamendua».

## MANCOMUNIDAD DE AGUAS DEL AÑARBE

*Convenio entre el Ayuntamiento de Usurbil y la Mancomunidad de Aguas del Añarbe de encomienda de gestión para la realización de actividades de apoyo a la nueva unidad de control y vigilancia de los sistemas de abastecimiento de titularidad municipal.*

La Junta de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, en sesión celebrada el día 7 de mayo de 2021, ha aprobado el Convenio entre el Ayuntamiento de Usurbil y la Mancomunidad de Aguas del Añarbe de encomienda de gestión para la realización de actividades de apoyo a la nueva unidad de control y vigilancia de los sistemas de abastecimiento de titularidad municipal. Dicho Convenio ha sido firmado por ambas partes el día 21 de julio de 2021.

Lo que se hace público de conformidad con lo dispuesto en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, y en el artículo 11.3 b) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

A continuación, se recoge el texto íntegro del convenio:

*Convenio entre el Ayuntamiento de Usurbil y la Mancomunidad de Aguas del Añarbe de encomienda de gestión para la realización de actividades de apoyo a la nueva unidad de control y vigilancia de los sistemas de abastecimiento de titularidad municipal.*

En Donostia/San Sebastián, a 21 de julio de 2021.

REUNIDOS

Dña. Agurtzane Solaberrieta Mesa, mayor de edad, con DNI xxxxxxxx-x y con domicilio a estos efectos en el Ayuntamiento de Usurbil, Joxe Martin Sagardia Plaza, z/g (Usurbil).

Y D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga, mayor de edad, con DNI xxxxxxxx-x y con domicilio a estos efectos en Paseo de Errotaburu n.º 1, 6.ª planta (Donostia/San Sebastián).

INTERVIENEN

Dña. Agurtzane Solaberrieta Mesa, en su condición de Alcaldesa del Ayuntamiento de Usurbil (en adelante, el Ayuntamiento de Usurbil); actuando en virtud de acuerdo adoptado por el Pleno municipal en su sesión de fecha 20 de julio de 2021.

D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga, en su condición de Presidente de la Mancomunidad Municipal de Aguas del Embalse del río Añarbe (en adelante, la Mancomunidad); actuando en virtud de acuerdo adoptado por la Junta de la Mancomunidad en su sesión de fecha 7 de mayo de 2021.

En el ejercicio de las funciones propias de sus cargos y de las facultades que les han sido otorgadas, se reconocen recíprocamente capacidad suficiente para suscribir el presente convenio de encomienda de gestión; y, a la vista de todo ello,

EXPONEN

*Primero.* El artículo 25.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, establece que el Municipio ejercerá como competencias propias el «abastecimiento de agua potable a domicilio y evacuación y tratamiento de aguas residuales».

EK\CV GAO-I-2021-07321

*Bigarrena.* Mankomunitatearen Estatutuetan aurreikusitako helburuen artean, uraren ziklo integralaren Kudeaketa osatzen duten zerbitzu guztiak emateko eskuduntzak daude.

*Hirugarrena.* Giza kontsumorako ur-horniduren osasunbermeak arautzen dituen araudiaren esparruan (Estatuko araudiaren esparruan hasieran, eta Autonomia Erkidegoko araudiaren esparruan ondoren), giza kontsumorako ur-hornidura mota oro zaindu eta kontrolatzera behartu dira kontsumo publikoko uraren hornidura-sistemen titularrak, eta gaur egun indarrean dagoen edateko uraren kalitatea kontrolatzeko eta zaintzeko nahiz horri guztiari buruz informatzeko sistema arautzen duen uztailaren 16ko 178/2002 Dekretua da zehaztasun handienarekin ezartzen diena hornidura-sistemen titularrei Kontrol eta Zaintza Unitateak (KZU aurrerantzean), propioak edo itunduak, edukitzeko betebeharra, kontsumo publikoko ur horien hornidura kontrolatu eta zaintzeko helburua betetzera bideratutako funtzio jakin batzuk betetzeko.

*Laugarrena.* Deskribatutako araudi-testuinguruan, kontsumo publikorako diren edateko uren Kontrol eta Zaintzarako Sarea ezartzen duen azaroaren 10eko 353/1987 Dekretua (gaur egun indargabetua) aztertu ondoren, Mankomunitateko Batzarrak, 1993ko ekainaren 24an egindako ezohiko bilkuran, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailari Mankomunitatea kontsumo publikoko edateko uren Kontrol Sarean Mankomunitateko hamar udalerrietako hornidura-sistemen (mankomunatuen zein bestelakoen) KZU gisa txertatzeko eskatzea erabaki zuen besteak beste. Sarean txertatzeko, Osasuneko sailburuordeak sinatutako Ebazpena eman zen 1994ko urtarrilaren 11n.

*Bosgarrena.* 353/1987 Dekretua indargabetzen duen edateko uraren kalitatea kontrolatzeko eta zaintzeko nahiz horri guztiari buruz informatzeko sistema arautzen duen uztailaren 16ko 178/2002 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, Aguas del Añarbe/Añarbeko Urak SAk (Ausa aurrerantzean) Mankomunitateak hamar udalerrietako hornidura-sistemen (mankomunatuen zein bestelakoen) KZU gisa jarduteko baimena berritzeko eskatu zion Eusko Jaurlaritzari 2003ko maiatzaren 15ean. Baimena Ausaren izenean berritu zen (Mankomunitatea ordeztuz) Gipuzkoako Osasun Publikoko zuzendariak sinatutako 2003ko urriaren 8ko Ebazpen bidez, 8 urteko indarraldiarekin.

*Seigarrena.* 2013ko urriaren 24an, adierazitako uztailaren 16ko 178/2002 Dekretuari jarraikiz, KZU gisa jarduteko baimena berritzeko eskatu zuen Ausak. 2014ko otsailaren 6an, Osasun Saileko Gipuzkoako lurralde-ordezkariak Ausari honako hornidura-sistema hauen Kontrol eta Zaintza Unitate gisa jarduteko baimena berritzea ebatzi zuen:

*Segundo.* Entre los fines de la Mancomunidad previstos en sus Estatutos se encuentra las atribuciones relacionadas con la prestación de todos los servicios integrantes de la gestión del ciclo integral del agua.

*Tercero.* En el marco de la normativa (inicialmente estatal y posteriormente autonómica) reguladora de las garantías sanitarias de los abastecimientos de agua con destino al consumo humano, se ha venido obligando a los titulares de los sistemas de abastecimiento de agua de consumo público a que efectúen una vigilancia y control sobre cualquier tipo de suministro de agua con destino al consumo humano, siendo el Decreto 178/2002, de 16 de julio, que regula el sistema de control y vigilancia e información de la calidad de las aguas de consumo público (actualmente vigente), el que con mayor precisión impone la obligación a los titulares de dichos sistemas de abastecimiento de disponer de Unidades de Control y Vigilancia (en adelante, UCV), propias o concertadas, para ejercer determinadas funciones orientadas a cumplir con la referida finalidad de controlar y vigilar el abastecimiento de dichas aguas de consumo público.

*Cuarto.* En el contexto normativo descrito, a la vista del hoy derogado Decreto 353/1987, de 10 de noviembre, por el que se establece la Red de Control y Vigilancia de las aguas potables de consumo público, la Junta de la Mancomunidad en sesión extraordinaria celebrada el 24 de junio de 1993 acordó, entre otros puntos, solicitar de la Consejería de Sanidad y consumo del Gobierno Vasco la incorporación de la Mancomunidad a la Red de Control de aguas potables de consumo público, como UCV de los sistemas de abastecimiento (mancomunados o no) de los diez municipios de la Mancomunidad. Resolviéndose esta incorporación a través de la Resolución firmada por el Viceconsejero de Sanidad de fecha 11 de enero de 1994.

*Quinto.* De acuerdo con lo establecido en el antecitado Decreto 178/2002 de 16 de julio, que regula el sistema de control y vigilancia e información de la calidad de las aguas de consumo público, que deroga el Decreto 353/1987, Aguas del Añarbe/Añarbeko Urak, S.A. (en adelante, Agasa) solicitó del Gobierno Vasco el 15 de mayo de 2003 la renovación de la autorización de la Mancomunidad como UCV de los sistemas de abastecimiento (mancomunados o no) de los diez municipios de la Mancomunidad. Resolviéndose esta renovación a nombre de Agasa (en sustitución de la Mancomunidad) a través de la Resolución firmada por el Director de Salud Pública de Gipuzkoa de fecha 8 de octubre de 2003 y con una vigencia de 8 años.

*Sexto.* El 24 de octubre de 2013 y de acuerdo con el mencionado Decreto 178/2002 de 16 de julio, Agasa solicitó la renovación de la autorización como UCV. Resolviendo el Delegado Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud con fecha 6 de febrero de 2014, renovar a Agasa la autorización para actuar como Unidad de Control y Vigilancia de los siguientes sistemas de abastecimiento:

| *Hornidura-sistema/Sistema de abastecimiento* | *Titularra/Titular* | *Kudeatzailea edo ustiatzailea/ Gestor o explotador* | *KZU/UCV* |
|---|---|---|---|
| Añarbe | Mankomunitatea / La Mancomunidad | AUSA / AGASA | AUSA / AGASA |
| Oiartzun | Oiartzungo Udala / Ayto. Oiartzun | Oiartzungo Udala / Ayto. Oiartzun | AUSA / AGASA |
| Lezo-Monatxo | Lezoko Udala / Ayto. Lezo | Lezoko Udala / Ayto. Lezo | AUSA / AGASA |
| Usurbil-Erroizpe | Usurbilgo Udala / Ayto. Usurbil | Usurbilgo Udala / Ayto. Usurbil | AUSA / AGASA |
| Pasai-Donibane | Pasaiako Udala / Ayto. Pasaia | Pasaiako Udala / Ayto. Pasaia | AUSA / AGASA |
| Pasai-Donibane barreiatua / diseminado | | | |
| Hernani-Aparrain | Hernaniko Udala / Ayto. Hernani | Hernaniko Udala / Ayto. Hernani | AUSA / AGASA |
| Hernani-Aizpitarte | | | |
| Urnieta-Goiburu | Urnietako Udala / Ayto. Urnieta | Urnietako Udala / Ayto. Urnieta | AUSA / AGASA |
| Urnieta-Goikoetxe | | | |

Baimen horrek 8 urteko indarraldia izango du, eta, beraz, 2022ko otsailaren 6an amaituko da indarraldi hori.

*Zazpigarrena.* Urte hauetan lortutako esperientziak agerian jarri duenez, beharrezkoa eta komenigarria da hornidura-sistema propioen titularrak eta ustiatzaileak izatea sistema horien KZUak. Hori dela eta, alderdiek interesa dute aipatutako baimena amaitzen denean Ausak udalerrietako hornidura-sistema propioen KZUa izateari uzteko eta udalak izateko beren hornidura-sistema propioen KZUa.

*Zortzigarrena.* Testuinguru horretan, Usurbilgo Udalak interesa du Kudeaketa Mankomunitateari gomendatzeko, Ausaren bitartez hitzarmen honetan KZU berriari laguntzeko ezarritako jarduera materialak egin ditzan eta Udalak arlo horretan dituen gaitasun teknikoak eraginkortasunez osatu ditzan.

*Bederatzigarrena.* Ausak udalerri jakin batzuetako udal hornidura-sistemen KZUaren funtzioa bete du, eta Usurbilgo Udalak egin beharreko jarduerak egiteko baliabide materialak eta giza baliabideak ditu.

Azaldutakoa dela eta, alderdiek Kudeaketa-mandatuko hitzarmena izenpetzen dute honako estipulazio hauei jarraikiz:

ESTIPULAZIOAK

*Lehenengoa. Hitzarmenaren xedea.*

Hitzarmen honen xedea da Usurbilgo Udalaren eta Mankomunitatearen artean Kudeaketa-mandatu bat ezartzea; mandatu horren bidez, Usurbilgo Udalak Mankomunitateari esleitzen dio Ausaren bitartez laugarren estipulazioan KZUari laguntzeko zehaztutako jarduerak egiteko zeregina, hirugarren estipulazioan zehaztuta dauden eta Usurbilgo Udalaren titulartasunpekoa den «Usurbil-Erroizpe» hornidura-sistemari dagokienez.

*Bigarrena. Indarrean sartzea.*

Ondorengo paragrafoan adierazitakoa galarazi gabe, Kudeaketa-mandatua 2022ko otsailaren 6tik aurrera izango ditu ondorio guztiak; egun horretan, Ausak Usurbilgo Udalaren hornidura-sistema propioen KZU gisa jarduteko gaur egun duen baimenaren indarraldia amaituko da.

Ausaren egungo baimena amaitzen den egun hori baino 4 hilabete lehenago, Ausak baimen hori berritzeko eskatuko dio Eusko Jaurlaritzari, eta, eskaeran, Mankomunitatearen eremukoak diren eta Mankomunitateari transferitu ez zaizkion hornidura-sistemak salbuetsiko ditu. Aldi berean, hitzarmen honen hirugarren estipulazioan zehaztutako «Usurbil-Erroizpe» hornidura-sistemaren KZUa izateko bidezko baimena eskatuko du Usurbilgo Udalak. Udalak baimen-eskaera behar bezala betetzeko, hitzarmen hau Eusko Jaurlaritzari egin beharreko eskaerari gaineratzeaz gain, beharrezkoa den dokumentazio guztia eskatu ahal izango dio Ausari (i) laugarren estipulazioan adierazitako laguntza teknikoa ematera bideratutako baliabideei dagokienez, eta (ii) Ausaren laborategiari dagokionez.

Adierazitako datatik aurrera, Ausak «Usurbil-Erroizpe» hornidura-sistemaren KZU berriari laguntzeko jarduera materialak egingo ditu, hitzarmen honen laugarren estipulazioan deskribatutako arloetan eta estipulazio horretan bertan xedatutako baldintzetan.

*Hirugarrena. «Usurbil-Erroizpe» hornidura-eremuaren esparru geografikoa zehaztea.*

Hitzarmen honen 1. eranskinean txertatutako planoetan, xehetasun osoz zehazten da hornidura-eremu edo -sistema horietako bakoitzak hornitzen duen esparru geografikoa.

La vigencia de esta autorización es de 8 años, por lo que dejará de estar en vigor el próximo 6 de febrero de 2022.

*Séptimo.* La experiencia adquirida a lo largo de estos años ha puesto de manifiesto la necesidad y conveniencia de que los titulares y explotadores de los sistemas de abastecimiento propios sean quienes adquieran la condición de UCV de los referidos sistemas, razón por la que las partes están interesadas en que Agasa deje de ejercer la condición de UCV de los sistemas de abastecimiento propios de los Municipios, una vez expire la autorización antes referida, y sean los Ayuntamientos correspondientes los que pasen a ejercer de UCV de sus propios sistemas de abastecimiento.

*Octavo.* En este contexto, el Ayuntamiento de Usurbil está interesado en encomendar la gestión a la Mancomunidad para que, a través de Agasa, ésta realice las actividades materiales de apoyo a la nueva UCV establecidas en este convenio, complementando así, con eficacia, las capacidades técnicas que el Ayuntamiento tiene en la materia.

*Noveno.* Agasa, que ha venido realizando la función de UCV de los sistemas municipales de abastecimiento de determinados Municipios, dispone de los medios materiales y humanos para realizar las actividades que precisa el Ayuntamiento de Usurbil.

Por todo lo expuesto, las partes suscriben un convenio de encomienda de gestión con arreglo a las siguientes

ESTIPULACIONES

*Primera. Objeto del convenio.*

El objeto del presente convenio es establecer una encomienda de gestión entre el Ayuntamiento de Usurbil y la Mancomunidad, en virtud de la cual el Ayuntamiento de Usurbil encomienda a la Mancomunidad la realización, a través de Agasa, de las actividades materiales de apoyo a la UCV definidas en la estipulación cuarta, en relación con el sistema de abastecimiento «Usurbil-Erroizpe» definido en la estipulación tercera, titularidad del Ayuntamiento de Usurbil.

*Segunda. Entrada en vigor.*

Sin perjuicio de lo señalado en el párrafo siguiente, la encomienda desplegará todos sus efectos a partir del 6 de febrero de 2022, fecha en que terminará la vigencia de la autorización actual de Agasa como UCV del sistema de abastecimiento propio del Ayuntamiento de Usurbil.

Con una antelación de 4 meses con respecto a esta fecha de finalización de la autorización actualmente vigente de Agasa, ésta solicitará del Gobierno Vasco la renovación de la misma, excluyendo en su solicitud los sistemas de abastecimiento del ámbito de la Mancomunidad que no hayan sido transferidos a ésta. A su vez, el Ayuntamiento de Usurbil solicitará la autorización correspondiente para adquirir la condición de UCV del sistema de abastecimiento «Usurbil-Erroizpe» definido en la estipulación tercera de este convenio. A efectos de que el Ayuntamiento pueda cumplimentar debidamente la solicitud de autorización, el Ayuntamiento, además de adjuntar el presente convenio a la solicitud a cursar ante el Gobierno Vasco, podrá solicitar a Agasa cuanta documentación sea precisa (i) en relación con los medios que se destinen a realizar la asistencia técnica señalada en la estipulación Cuarta, así como (ii) respecto del laboratorio de Agasa.

A partir de la citada fecha, Agasa realizará las actividades materiales de apoyo a la nueva UCV del sistema de abastecimiento «Usurbil-Erroizpe», en las materias descritas en la estipulación cuarta del presente convenio, en los términos y las condiciones allí dispuestas.

*Tercera. Definición del ámbito geográfico de la zona de abastecimiento «Usurbil-Erroizpe».*

En los planos incluidos en el anejo 1 de este convenio, se define detalladamente el ámbito geográfico al que abastece cada una de estas zonas o sistemas de abastecimiento.

Plano horietan, sistema horietako bakoitzeko kontsumoko uren ohiko hornidura-erregimenari dagokiona hartu da esparru geografikotzat.

Hornidura-sistema propio batek hornitu ohi duen esparru geografiko horretan edozein Udalek aldaketaren bat egin aurretik, Ausari eta dagokion Udaleko osasun-agintari eskudunei jakinarazi beharko zaie.

Udalak Ausari esparru geografiko horietako edozein ezohiko izaeraz Añarbe sistemako urez hornitzeko egiten dion eskaerak ez du aldatuko hemen itundutako erlazioa; Ausak esleitutako jarduerak egiten jarraituko du, eta Udalak esparru geografiko horretako KZUa izaten jarraituko du, baita adierazitako zirkunstantzia agertzen denean ere.

*Laugarrena. Mankomunitateak Ausaren bitartez egin beharreko jarduera materialak.*

Kudeaketa-mandatuak bere ondorio guztiak sortzen dituenetik (bigarren estipulazioa) Ausak Udalarentzat KZU berriari laguntzeko egingo dituen jarduera materialak bi multzotan banatuta daude:

* KZU bakoitzak bere hornidura-eremuan edo hornidura-sisteman egin beharreko Kontrol eta Kudeaketa Programa (KKP aurrerantzean) lantzea (urtean behin).

* KKParen zenbait alderdi ezartzea:

— Uraren kalitatearen egiaztapena.

— Jarduketak adostasunik ez dagoen egoeretan eta gorabeheretan.

— Dokumentazioaren eta erregistroen Kudeaketa.

— Auditoria eta ebaluazioa.

4.1. KZU bakoitzak bere hornidura-sistemarako KKPa lantzea.

Ausak hornidura-eremu bakoitzeko KKPa idazten egin duen ibilbide luzea dela eta, Ausak doan idazten jarraituko du 8 urteko aldi batean, Kudeaketa-mandatuak bere ondorio guztiak sortzen dituenetik aurrera zenbatzen hasita; aldi hori amaitu eta Udaleko langileak KKParen dokumentuarekin ohitu ondoren, haiek beren gain hartuko dute idazteko zeregina, eta, horretarako, Añarberen laguntza izango dute behar duten edozertarako.

Hitzarmen honen 2. eranskinean, KKPak bildu beharreko 8 elementuen edukia dago xehatuta; zeregin hori Ausak egiten du gaur egun, eta beste 8 urtetan egiten jarraituko du, adierazitako baldintzetan.

Halaber, Udalaren eta Ausaren artean beharrezkoa den koordinazioa ezartzen da, erakunde bakoitzak aurkeztu beharreko informazioarekin KKPa osatzen duten 8 elementuak idatzi ahal izateko. KKPa idazteko erakunde bakoitzak aurkeztu beharreko informazio edo zereginen banaketa hori egungoaren berdina izango da, eta ez da aldatuko hitzarmenaren indarraldian (KZUa Udala denean eta KKPa 8 urteko aldian Ausak idazten duenean nahiz KZUa Udala denean eta KKPa Udalak idazten duenean). Nolanahi ere, Ausak egin beharreko zereginak doakoak izango dira Udalarentzat.

KKPa lantzeko eta urte berria hasi aurretik osasun-agintari eskudunei bidaltzeko, bete beharreko mugarriak honako hauek izango dira:

En ellos se ha definido como ámbito geográfico el correspondiente al régimen habitual de abastecimiento de las aguas de consumo desde cada uno de estos sistemas.

Cualquier cambio realizado por un Ayuntamiento en este ámbito geográfico abastecido con carácter habitual desde un sistema propio de abastecimiento, deberá ser comunicado a Agasa y a la autoridad sanitaria competente por el Ayuntamiento correspondiente antes de ser llevado a cabo.

La solicitud por el Ayuntamiento a Agasa de suministro excepcional de agua procedente del sistema Añarbe a cualquiera de estos ámbitos geográficos no alterará la relación aquí pactada, Agasa continuará realizando las actividades encomendadas y el Ayuntamiento conservará su condición de UCV de dicho ámbito geográfico aun dándose la citada circunstancia.

*Cuarta. Actividades materiales a realizar por la Mancomunidad, a través de Agasa.*

Las actividades materiales que, como apoyo a la nueva UCV, seguiría realizando Agasa para el Ayuntamiento desde que la encomienda de gestión despliegue todos sus efectos (estipulación Segunda) se dividen en dos bloques:

* Elaboración anual del Programa de Control y Gestión (en adelante, PCG) que cada UCV realiza de su zona o sistema de abastecimiento.

* Implantación de algunos aspectos del PCG:

— Verificación de la calidad del agua.

— Actuaciones en situaciones de no conformidad e incidencias.

— Gestión de la documentación y de los registros.

— Auditoría y evaluación.

4.1. Elaboración del PCG que cada UCV realiza de su sistema de abastecimiento.

Debido a la larga trayectoria de Agasa en la redacción del PCG de cada zona de abastecimiento, Agasa continuará redactándolo de forma gratuita durante un período de 8 años desde que la encomienda de gestión despliegue todos sus efectos, de forma que, según se vaya familiarizando el personal del Ayuntamiento con el documento del PCG, acabe asumiendo su redacción (contando con la colaboración de Añarbe para aquello que necesiten) transcurrido este período.

En el anejo 2 de este convenio se detalla el contenido de los 8 elementos que ha de contener la redacción del PCG; tarea que actualmente realiza Agasa y que seguirá realizando durante 8 años, en los términos señalados.

También se articula la coordinación necesaria Ayuntamiento-Agasa con la información que cada entidad ha de aportar para que la redacción de estos 8 elementos que componen el PCG sea posible. Este reparto de tareas o información a aportar por cada entidad para la redacción del PCG será idéntica al actual y permanecerá inalterable en cualquier caso durante la vigencia del convenio (sea la UCV el Ayuntamiento y redacte el PCG Agasa durante 8 años; o sea la UCV el Ayuntamiento y redacte el PCG el Ayuntamiento), siendo las tareas a realizar por Agasa gratuitas para el Ayuntamiento.

Para la elaboración del PCG y su envío a la autoridad sanitaria competente antes del inicio del nuevo año los hitos a cumplir serán los indicados a continuación:

EK\CV GAO-I-2021-07321

| Ekintza/Acción | Arduraduna/Responsable | Ira./Sep. | | Urr./Oct. | | Aza./Nov. | | Abe./Dic. | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| AUSAri KKPan txertatu beharreko dokumentazioa entregatzea / Entrega a AGASA de la documentación a integrar en el PCG | Udala / Ayuntamiento | | ■ | ■ | | | | | |
| KKPa lantzea / Elaboración del PCG | AUSA / AGASA | | | | ■ | ■ | | | |
| Baterako berrikuspena / Revisión conjunta | Udala/AUSA / Ayto./AGASA | | | | | | ■ | ■ | |
| Dokumentua osasun-agintaritza eskudunari bidaltzea / Envío del documento a la autoridad sanitaria competente | Udala / Ayuntamiento | | | | | | | | ■ |

— Urte bakoitzeko irailaren 15a baino lehen, Ausak KKPa lantzeko beharrezkoa den dokumentazioa eskatuko dio Udalari.

— Urte bakoitzeko urriaren 15a baino lehen, Udalak dokumentazio hori aurkeztu beharko du.

— Urte bakoitzeko azaroaren 15a baino lehen eta KKPa Udalak aurkeztutako dokumentazioarekin eta Ausak dagoeneko baduenarekin landu ondoren, Ausak KKParen zirriborroa igorriko dio Udalari, bi erakundeek batera berrikus dezaten.

— Gabonen aurretik, Udalak osasun-agintaritza eskudunari bidaliko dio KKPa.

8 urteko hasierako aldia igaro ondoren eta, hala badagokio, aldi horren ondorengo luzapenean, hornidura-sistema bakoitzaren KKPa sistemaren KZUak landuko du (Udalak kasu honetan). Kasu horretan, KKPa lantzeko eta urte berria hasi aurretik osasun-agintari eskudunei bidaltzeko, bete beharreko mugarriak honako hauek izango dira:

— Antes del 15 de septiembre de cada año, Agasa solicitará formalmente al Ayuntamiento la documentación necesaria para la elaboración del PCG.

— Antes del 15 de octubre de cada año, el Ayuntamiento deberá aportar dicha documentación.

— Antes del 15 de noviembre de cada año y tras elaborar el PCG con la documentación aportada por el Ayuntamiento y la ya existente en Agasa, ésta remitirá el borrador del PCG al Ayuntamiento para su revisión conjunta por ambas entidades.

— Antes de navidad, el Ayuntamiento enviará el PCG a la autoridad sanitaria competente.

Transcurrido el período inicial de 8 años y durante la prórroga que, en su caso, subsiga a dicho periodo, el PCG de cada sistema de abastecimiento pasará a ser elaborado por la UCV del sistema, en este caso el Ayuntamiento. En este caso, para la elaboración del PCG y su envío a la autoridad sanitaria competente antes del inicio del nuevo año, los hitos a cumplir serán los indicados a continuación:

| Ekintza/Acción | Arduraduna/Responsable | Ira./Sep. | | Urr./Oct. | | Aza./Nov. | | Abe./Dic. | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Udalari KKPan txertatu beharreko dokumentazioa entregatzea / Entrega al Ayuntamiento de la documentación a integrar en el PCG | AUSA / AGASA | | ■ | ■ | | | | | |
| KKPa lantzea / Elaboración del PCG | Udala / Ayuntamiento | | | | ■ | ■ | | | |
| Baterako berrikuspena / Revisión conjunta | Udala/AUSA / Ayto./AGASA | | | | | | ■ | ■ | |
| Dokumentua osasun-agintaritza eskudunari bidaltzea / Envío del documento a autoridad sanitaria competente | Udala / Ayuntamiento | | | | | | | | ■ |

— Urte bakoitzeko irailaren 15a baino lehen, Udalak KKPa lantzeko beharrezkoa den dokumentazioa eskatuko dio Ausari.

— Urte bakoitzeko urriaren 15a baino lehen, Ausak dokumentazio hori aurkeztu beharko du.

— Urte bakoitzeko azaroaren 15a baino lehen eta KKPa Ausak aurkeztutako dokumentazioarekin eta Udalak dagoeneko baduenarekin landu ondoren, Udalak KKParen zirriborroa igorriko dio Ausari, bi erakundeek batera berrikus dezaten.

— Gabonen aurretik, Udalak osasun-agintaritza eskudunari bidaliko dio KKPa.

KKPa idazteko zeregina arintze aldera, bi erakundeek formatu digitalean entregatuko dute horretarako beharrezkoa den informazioa.

4.2. Kontrol eta Kudeaketa Programaren zenbait alderdi ezartzea.

Ausak, KZU gisa, KKPa idazteaz gain KKParen 4. puntua («Uraren kalitatearen egiaztapena»), 5. puntua («Jarduketak adostasunik ez dagoen egoeretan eta gorabeheretan») eta 7. puntua («Dokumentazioaren eta erregistroen Kudeaketa») ezartzeko zereginak egiten ditu gaur egun.

— Antes del 15 de septiembre de cada año, el Ayuntamiento solicitará formalmente a Agasa la documentación necesaria para la elaboración del PCG.

— Antes del 15 de octubre de cada año, el Agasa deberá aportar dicha documentación.

— Antes del 15 de noviembre de cada año y tras elaborar el PCG con la documentación aportada por Agasa a la ya existente en el Ayuntamiento, éste remitirá el borrador del PCG a Agasa para su revisión conjunta por ambas entidades.

— Antes de navidad, el Ayuntamiento enviará el PCG a la autoridad sanitaria competente.

Al objeto de agilizar la redacción del PCG, la entrega de la información necesaria para ello entre ambas entidades se realizará en formato digital.

4.2. Implantación de algunos aspectos del Programa de Control y Gestión.

Además de la redacción del PCG, Agasa realiza actualmente, como UCV, tareas de implantación de los puntos 4 («Verificación de la calidad del agua»), 5 («Actuaciones en situaciones de no conformidad e incidencias») y 7 («Gestión de la documentación y de los registros») del PCG.

EK\CV GAO-I-2021-07321

4.2.1. Uraren kalitatearen egiaztapena.

Ausak gaur egun KKParen 4. elementua (uraren kalitatearen egiaztapena) ezartzeko egiten dituen zereginak Ausak berak egingo ditu doan hitzarmenaren indarraldian.

Hitzarmenaren 3. eranskinean, KKParen 4. puntua ezartzeko zeregin horiek daude xehatuta, eta Ausak egiten dituenak eta Udalak egiten dituenak adierazten dira.

Egindako analitiken kopuruari dagokionez, indarrean dagoen erregelamentazioan eskatutakoak baino % 30 gehiago egingo ditu Ausak doan, betidanik egin duen bezala. Udalak kopuru hori gainditu ondoren eskatzen dituen analitikak Udalak berak ordaindu beharko ditu.

Udalak analitikaren bat bere kontura eta Ausarenaz bestelako laborategi batean egiten badu, analitika hori ordaintzeaz eta emaitzak osasun-agintaritza eskudunari jakinarazteaz arduratuko da.

4.2.2. Jarduketak adostasunik ez dagoen egoeretan eta gorabeheretan.

Ausak KKParen 5. elementua (jarduketak adostasunik ez dagoen egoeretan eta gorabeheretan) ezartzeko partzialki egiten dituen zereginak aldatu egingo dira mandatuak bere ondorio guztiak sortzen dituenean.

Aldaketa horiek eta erakunde bakoitzak (Udalak eta Ausak) egin beharreko emaitzazko zereginak hitzarmenaren 4. eranskinean jasota daude. Hitzarmenaren indarraldian, Ausak doan egingo ditu puntu honetan dagozkion zereginak.

4.2.3 Dokumentazioaren eta erregistroen Kudeaketa.

Hitzarmenaren indarraldian eta doan, Ausak EKUISean erregistratu beharreko informazioa kudeatu eta eguneratuko du. Udaleko teknikariak Ausari aldaketa aipagarriak jakinarazteaz, azpiegiturei buruzko datuak eguneratzeaz eta instalazio berriak txertatzeaz arduratuko dira, erregistratu daitezen. Sareetan sortzen diren gorabeherak EKUISean erregistratuko ditu Ausak, eta udal-teknikariek haien komunikazioa ziurtatu beharko dute, hitzarmenaren 4. eranskinean islatutako baldintzetan.

EKUISean, datuak urtean behin berrikusiko dira, emaitza analitikoen kasuan izan ezik; kasu horretan, astean behin berrikusiko dira.

4.2.4. Auditoria eta ebaluazioa.

Berritasun modura, eta KKParen 8. elementua (auditoria eta ebaluazioa) ezartzeko zereginen barruan, Ausak urteko barne-auditoria bat egingo die hornidura-sistema propioak dituzten udalei, eta ez du inolako kosturik izango udalentzat.

*Bosgarrena. Jarraipen Batzordea.*

Hitzarmen hau izenpetzen den egunean bertan, hitzarmenaren betetzearen jarraipena egiteko Batzorde bat eratu da. Hona hemen Batzordea osatuko dutenak:

Udalaren ordezkari gisa (Udalak erabakitzeko):

— Obra eta Zerbitzuetako zinegotzia.

— Udalak izendatu beharreko teknikari arduraduna.

Mankomunitatearen ordezkari gisa:

— Ausako zuzendari kudeatzailea.

— Ausako zuzendari teknikoa.

Batzordeko kideek finkatuko dute bileren aldizkakotasuna eta bilerak egiteko erregimen zehatza. Batzordeak, hitzarmena-

4.2.1. Verificación de la calidad del agua.

Las tareas de implantación del elemento 4 del PCG (verificación de la calidad del agua) realizadas por Agasa en la actualidad seguirán siendo realizadas por Agasa de manera gratuita durante la vigencia del convenio.

En el anejo 3 del convenio se detallan estas tareas de implantación del punto 4 del PCG, indicándose cuáles realiza Agasa y cuáles el Ayuntamiento.

En relación con el número de analíticas realizadas, Agasa realizará de forma gratuita, como viene haciendo desde siempre, un 30 % más de las analíticas exigidas en la reglamentación vigente. Las analíticas realizadas a solicitud del Ayuntamiento que excedan de la citada cuantía deberán ser abonadas por el Ayuntamiento.

Si el Ayuntamiento realizase por su cuenta alguna analítica a través de algún laboratorio ajeno al de Agasa, se haría cargo de su abono y de la comunicación de los resultados de sus analíticas a la autoridad sanitaria competente.

4.2.2. Actuaciones en situaciones de no conformidad e incidencias.

Las tareas de implantación del elemento 5 del PCG (actuaciones en situaciones de no conformidad e incidencias), realizadas parcialmente por Agasa, se modificarán cuando la encomienda despliegue todos sus efectos.

Estas modificaciones, así como las tareas resultantes a realizar por cada entidad (Ayuntamiento y Agasa), se recogen en el anejo 4 del convenio. Agasa realizará las tareas que le corresponden en este punto de forma gratuita durante la vigencia del convenio.

4.2.3. Gestión de la documentación y de los registros.

Durante la vigencia del convenio y de forma gratuita, Agasa gestionará y actualizará la información a registrar en el EKUIS. El personal técnico del Ayuntamiento se responsabilizará de la comunicación a Agasa de las modificaciones reseñables, de la actualización de los datos de las infraestructuras o de la incorporación de nuevas instalaciones para su registro. Las incidencias que se puedan originar en las redes serán registradas por Agasa en el EKUIS, por lo que los técnicos municipales deben asegurar su comunicación en los términos reflejados en el anejo 4 del convenio.

La frecuencia de revisión de los datos en el EKUIS tendrá carácter anual salvo para los resultados analíticos, cuya frecuencia será semanal.

4.2.4. Auditoría y evaluación.

Como novedad y dentro de las labores de implantación del elemento 8 (auditoría y evaluación) del PCG, Agasa realizará de forma gratuita, durante la vigencia del convenio, una auditoría interna anual a los Ayuntamientos con sistemas de abastecimiento propios, sin coste alguno para éstos.

*Quinta. Comisión de seguimiento.*

Se constituye, en la misma fecha de suscripción del presente convenio, una Comisión para el seguimiento del cumplimiento del mismo. La comisión estará integrada por:

En representación del Ayuntamiento:

— El/La Concejal de Obras y Servicios.

— El/La técnico responsable a designar por el Ayuntamiento.

En representación de la Mancomunidad:

— El Director Gerente de Agasa.

— El Director Técnico de Agasa.

Los miembros de la Comisión determinarán la periodicidad y el concreto régimen de celebración de las reuniones. La comi-

EK\CV GAO-I-2021-07321

ren betetzearen jarraipena egiteaz gain, hitzarmenaren inguruan plantea daitezkeen interpretazio- edo betetze-arazoak konponduko ditu.

*Seigarrena. Kudeaketa-mandatuaren indarraldia.*

Kudeaketa-mandatuak indarrean jarraituko du Usurbilgo udalerriak bere hornidura-sistema propioak ustiatzen eta Mankomunitatearen parte izaten jarraitzen duen bitartean, eta 8 urteko indarraldia izango du gehienez, 2022ko otsailaren 6tik aurrera zenbatzen hasita (bigarren estipulazioa); horrela, beraz, KZU gisa jarduteko baimen berriaren indarraldi bera izango du, edateko uraren kalitatea kontrolatzeko eta zaintzeko nahiz horri guztiari buruz informatzeko sistema arautzen duen uztailaren 16ko 178/2002 Dekretuaren 7.5 artikuluaren arabera. Adierazitako 7.5 artikuluari jarraikiz baimen berriaren indarraldia luzatzen bada, hitzarmen hau automatikoki luzatuko da (behin baino ez), eta KZU gisa jarduteko baimenaren indarraldi bera izango du luzapenak. Horrela, beraz, Kudeaketa-mandatuaren gehieneko indarraldia, luzapena barnean hartuta, 16 urtekoa izango da, 2022ko otsailaren 6tik aurrera zenbatzen hasita. Epe hau igaro ondoren, Kudeaketa-agindua berrikusi beharko litzateke.

*Zazpigarrena. Aldaketa eta ebazpena.*

Hitzarmen honetan sinatzaileek aho batez adostuta egiten diren aldaketak bidezko aldaketa-tresna izenpetzearen bidez formalizatu beharko dira, hasierako onarpenerako eskatutako baldintza beretan.

Gainerakoan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik ez ezik, Udalak bere hornidura-sistema propioak ustiatzeari uzteagatik ere suntsiaraziko da hitzarmena.

*Zortzigarrena. Araubide juridikoa eta jurisdikzioa.*

Hitzarmen hau Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan aurreikusitakoen izaera du, eta Sektore Publikoko Kontratuen eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen azaroaren 8ko 9/2017 Legetik kanpo dago, 6. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du eskumena hitzarmenaren interpretazioarekin eta garapenarekin lotuta sor daitezkeen auzigai guztiak aztertzeko.

*Bederatzigarrena. Publizitatea.*

Kudeaketa-mandatuko hitzarmen hau Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.3 b) artikuluan xedatutakoaren arabera emango da argitara. Ildo horretan, alderdiek berariaz ematen dute baimena hitzarmen honi eskatutako publizitatea emateko.

Eta ados daudela erakusteko, alderdiek hitzarmen hau sinatzen dute ale bitan, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Donostia, 2021eko azaroaren 11.—Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga, Añarbeko Uren Mankomunitateko presidentea.

(7321)

sión, además de realizar el seguimiento de la ejecución del convenio, resolverá los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse respecto del mismo.

*Sexta. Vigencia de la encomienda de gestión.*

La encomienda de gestión se mantendrá vigente mientras el municipio de Usurbil siga explotando sus sistemas de abastecimiento propios y siga formando parte de la Mancomunidad, con una vigencia máxima de 8 años, a contar desde 6 de febrero de 2022 (estipulación Segunda), coincidente con el periodo de vigencia de la nueva autorización de UCV, según resulta del artículo 7.5 del Decreto 178/2002, de 16 de julio, por el que se regula el sistema de control, vigilancia e información de la calidad de las aguas de consumo público. En el caso de que, de conformidad con dicho artículo 7.5, se prorrogue la vigencia de la nueva autorización, se producirá asimismo, por una sola vez, la prórroga automática del presente convenio por una vigencia igual a la que tenga la referida autorización de UCV. Siendo así, la vigencia máxima de la encomienda de gestión, incluida su prórroga, será de 16 años, a contar desde 6 de febrero de 2022. Periodo tras el cual, se procedería a revisar la encomienda de gestión.

*Séptima. Modificación y resolución.*

Las posibles modificaciones de este convenio, acordadas de forma unánime por los firmantes, deberán formalizarse mediante la suscripción del correspondiente instrumento modificativo, con los mismos requisitos y condiciones exigidos para la aprobación inicial.

Por lo demás, el convenio se resolverá, además de por las causas previstas en el artículo 51 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen jurídico de las Administraciones Públicas, por el cese en la explotación de los sistemas de abastecimiento propios por parte del Ayuntamiento.

*Octava. Régimen jurídico y jurisdicción.*

El presente convenio tiene la naturaleza de los previstos en el artículo 11 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, y está excluido de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, conforme a lo dispuesto en su artículo 6.3.

El orden jurisdiccional contencioso-administrativo será el competente para conocer todas las cuestiones litigiosas que pudieran surgir en relación con la interpretación y desarrollo del convenio.

*Novena. Publicidad.*

Este convenio de encomienda de gestión será objeto de publicación de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, y en el artículo 11.3 b) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. En este sentido, las partes prestan expresamente su consentimiento para que se le dé al presente convenio la publicidad exigida.

Y en prueba de conformidad y aceptación, las partes firman el presente Convenio, por duplicado ejemplar, en el lugar y la fecha indicados en el encabezamiento.

San Sebastián, a 11 de noviembre de 2021.—El presidente de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga.

(7321)

EK\CV GAO-I-2021-07321